



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

1. Ordenantza Fiskala Ondasun higiezinaren gaineko zerga

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupezu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, Ermuko udalerrian Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainarazpena araupezu da, 4/2016 Foru Arauan eta zerga ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. ARTIKULUA

Honako ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

Ondasun higiezina udal-mugarte ezberdinetan kokatua badago, udal-mugarte bakoitzean okupatzen duen azaleraren arabera dela batekoa eta bestekoa ulertuko da honako zergaren ondorioetarako.

II. ZERGA-EGITATEA

3. ARTIKULUA

1. Ondasun Higiezinaren gaineko zerga zuzen eta erreala da Ermuko udal-mugartean dauden landa- eta hiri- izaerako ondasunen balioa eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinena zergapetzen duena eta berorren zerga-egitatea ondasun horien gainean ondorengo eskubideak izatea da:

- a) Higiezinaren euren edo beroriei lotutako zerbitzu publikoen administrazio-emakida.
- b) Azalera-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

2. Aurreko atalean zehaztutakoen artean -eta bertan ezarritako ordenan gainera-kasuan kasuko zerga-egitatega gauzatzea, hiri- edo landa-higiezinak bertan zehazten diren gainerako modalitateei ez lotzea ekarriko du. Lehentasun bera aplikatuko da ezaugarri bereziko ondasunen kasuan ere, higiezinaren gaineko emakida eskubideak haren azalera osoa hartzen ez dutenean salbu, kasu horretan ere zerga-egitatega emakidakoa ez den higiezin-zatiaren gaineko jabetza-eskubideetatik bakarrik gauzatuko baita.

3. Zerga honen ondorioetarako landa-, hiri- eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak izangodira Higiezinaren Foru Katastroaren arauetan halakotzat hartzen direnak.

4. Ez dute zerga hau ordaindu beharko:

a) Errepideak, bideak, gainerako lehorreko komunikaziobideak eta itsaso-lehorreko jabari publikoko ondasunak, bai eta jabari publikoko ondasunak ere, euren aprobetxamendua publikoa eta doakoa denean.

b) Honako ondasun higiezinak, zeinak kokatzen diren udalerriaren jabetzakoak diren:

Erabilera publikoari lotutako jabari publikoko ondasunak.

Udalak zuzenean gestionatzen duen zerbitzu publiko bati lotutako jabari publikoko ondasunak, kontraprestazio bidez hirugarrenengoei lagatako higiezinak izan ezik.

Ondare-ondasunak, oraingoan ere kontraprestazio bidez hirugarrenengoei lagatako higiezinak izan ezik.

III. SALBUESPENAK

4. ARTIKULUA

Ondasun hauek salbuetsiko dira:

a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Bizkaiko Lurralde Historikoarenak eta toki erakundeek, baldin eta zuzeneko lotura badute nazioaren defentsarekin, herritarren segurtasunarekin edo hezkuntza eta espetze zerbitzuekin.

b) Auzo ondasunak eta herritar guztien eskuko auzabasoak.

c) Hazkunde moteleko zuhaitzez baso berriak diren titulartasun publiko edo pribatuko basoak, 9/89 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

d) Eliza Katolikoaren ondasunak, Estatuak eta Vatikanok gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an egin zuten Itunean ezarritako baldintzen pean.

e) Legez aintzatetsitako elkarte konfesional ez katolikoek ondasunak, baldin eta haiekin Konstituzioaren 16. artikuluan ageri diren lankidetzak-hitzarmenak egiten badira.

f) Gurutze Gorriarenak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

g) Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatearen ondasunak.

h) Atzerriko gobernuenak, haien ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrerako edo haien erakunde ofizialetarako badira, elkarrekotasunaren baldintzapean edo indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera.

i) Nazioarteko indarreko hitzarmenak direla bide salbuets daitezkeen organismo edo erakundeek.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

1. Ordenantza Fiskala Ondasun higiezinaren gaineko zerga

j) Trenbideek atzemandako lurrak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Horrenbestez, ez daude salbuetsita ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta zabalaldiko establezimenduak, ez eta enpleguak bizi izateko egindako etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.

k) Ondasun higiezinak kokatzen diren herritako udalei ordainik gabe lagatakoak

l) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak zuzenean kudeatzen edo ustiatzen baditu, edo Bizkaiko Foru Aldundiak partaidetza nagusia duen erakunde batek, bai eta kudeaketa edo ustiapen horri lotutako higiezinak ere.

m) Kultur intereseko monumentu edo lorategi historiko izendatu eta beren beregi halakotzat banaka inskribatutako ondasunak, indarreko legerian ezarritako eran.

n) Hezkuntza-kontzertuen erregimenei atxikitako ikastetxe pribatuak, ikastetxe kontzertatu diren bitartean. Halakoetan eskaera egin beharko da alde aurretik.

o) Irabazteko xederik gabeko gizarte jardueretarako soil-soilik erabiltzen diren ondasun higiezinak, erakundea bera ondasunaren titularra denean, bai eta jabeek, kostu bidez, horrelako jardueretarako lagatzen dituztenean ere, titularrak alde aurretik eskatuta.

p) Kuota likidua 6 euro azpitik duten hiri ondasunak, bai eta landa-ondasunak ere, baldin eta subjektu pasibo bakoitzari udalerrian dituen landa-ondasun guztiengatik dagokion kuota likidua 6 euro azpitik dagoenean.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA

a) Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan ageri diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta erakundeak. Subjektu pasibo dira baita ere testamenturik gabeko jaraunspenak, zerga honen zerga-egitatea sortzen duen eskubidearen titulartasuna dutenean.

Emakidadun batek baino gehiagok badute zergadun izaera, horietako bakoitza bere kuotaren arabera izango da zergaduna. Kuota hori zehazteko, berriz, emakidan emandako azaleraren eta emakida bakoitzari zuzenean lotutako eraikuntzaren katastro-balioaren zatia hartuko da aintzat. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren arabera, emakidadunek deklarazioak formalizatzeko duten betebeharrari kalterik eragin barik, higiezina lotuta duen edota haren administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen den erakunde edo organismo publikoak derrigorrez eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari emakida horiei buruzko informazioa, arauz zehaztutako termino eta baldintzetan.

Baldin eta jabea emakiden pean ez dagoen azalerarengatik zergaduna bada, aurreko paragrafoan aipagai izan dugun erakunde edo organismo publikoak beraren ordezkari izango du. Erakundeak, gainera, ezin izango dio zergadunari jasalarazi erakundeak berak kitatu duen zerga-zorra.

Udalak zergaren kuota likido osoa jasalaraziko die, subjektu pasibo izan ez arren, ondare-ondasunak edo jabari publikoak kontraprestazioz erabiltzen dituztenei.

Halaber, zergadunaren ordezkariak jasalarazi ahal izango die gainerako emakidadunei bakoitzak ordaindu beharreko kanonei proportzionalki dagokien kuota likidoaren zatia.

b) Ondasunak zatitugabeak edota pertsona multzo batenak direnean erkide bakoitzari esleituko zaio katastroaren titulartasuna, bakoitzari beraren kuotaren arabera; edota, hala bada, pertsona guztien artean osatzen duten erkidegoari esleituko zaio, erkidegoa, betiere, dagokion identifikazio fiskaleko zenbakiarekin identifikatuta. Kasu horretan, zerga-kuota banatzeko eskatu ahal izango da, baina horretarako ezinbestekoa izango da ordaintzeko derrigorra duten gainerako zergadunen datu pertsonalak eta zerga-helbideak ematea.

Zerga-kuota ezin izango da banatu, baldin eta banaketaren ondorioz kuota bakoitza sei euro baino txikiagoa bada.

c) Irabazpidezko erregimenean dauden ezkontideen ondasunen kasuan edota ezkontideek ondasunen foru-komunikazioa egin badute, ez da zergaren kuota banatzerik onartuko, eta likidazio bakarra egingo da. Ildo beretik, ezin izango da kuotarik banatu, baldin eta izatezko bikotea izanik, aipatu berri ditugun bi ondare- eta ekonomia-erregimenetakoren bat aukeratu badute.

6. ARTIKULUA

1. Edozein arrazoi dela eta, zerga-egitatea osatzen duten eskubideen titulartasunean aldaketaren bat izango balitz, eskubide horien xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko betebeharraren pean geldituko dira, erantzukizun subsidiarioaren erregimenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek aurreikusitakoarekin bat.

Ondorio horretarako, notarioek horren inguruko informazioa eskatu eta eskualdatze-agirietan ageri diren pertsonen ohartaraziko diete, sinatuko dituzten agirietan bertan, eskualdatzen den higiezinari lotutako zerga-zorrik dagoen, eta eskualdatutako ondasunak zerga-kuota ordaintzeko betebeharraren pean geldituko direla.

2. Zerga horren kuotan solidarioki erantzungo dute, bakoitzak duen partaidetzaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluen 3. atalean aipatzen diren erakundeetako partaidetza edo titularkideek, baldin eta Higiezinaren Foru Katastroan halakotzat agertzen badira. Bertan izena emanda agertzen ez badira, denei hein bereko erantzukizuna eskatuko zaie.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

1. Ordenantza Fiskala Ondasun higiezinaren gaineko zerga

V. ZERGA OINARRIA

7. ARTIKULUA

Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauak xedatzen duen ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da zerga-oinarrria.

VI. ZERGA- KUOTA

8. ARTIKULUA

1. Zerga-oinarrria eta karga-tasa biderkatzearen emaitza izango da zerga horren kuota osoa.

2. Kuota likidua zehazteko, ordenantza honen 9. artikuluan aurreikusitako hobarien zenbatekoa kenduko zaio kuota osoari.

3. Karga-tasa % 0,3429 izango da hiri-ondasunen kasuan, eta % 0,0871 landa-ondasunen kasuan.

4. EBOHentzako karga-tasa % 0,50ekoa izango da.

Nolanahi ere, eta hiri-erabilera aintzat hartuta, honako karga-tasa hauek xedatu dira hiri-ondasun higiezinaren balorazioa egiteko, katastro-araudian xedatutakoarekin bat

Industria-erabilerarako (I), karga-tasa % 1,3547koa izango da.

Merkataritza-erabilerarako (C), karga-tasa % 0,5829koa izango da.

Gainerako erabileretarako, bizitegi- erabilerarako (V) eta beste erabilera batzuetarako (Y) izan ezik, karga-tasa % 0,5450 izango da.

VII. HOBARIAK ETA ERREKARGUAK

9. ARTIKULUA

1. Obra berriak zein berritzat har daitezkeen zaharberrikuntzako obrak egiten dituzten urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren higiezinak %50eko hobaria izan dezakete zergaren kuota osoan, baldin eta interesatuak obrei ekin aurretik eskatzen badu eta higiezina ibilgetuko ondasuna ez bada.

Hobari hori obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean jaso ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio- edo eraikuntza-obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

2. Babes publikoko etxebizitzetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauarekin bat etorritako haiekin berdinetan ahal diren etxebizitzetako ziozko zergaren kuota osoari %50eko hobaria aplikatu ahal zaio

behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesatuak eskatuz gero emango da eta edozein unetan aplikatu ahal izango da hiru zergaldiak bukatu aurretik, eta beti ere eskatu eta hurrengo zergaldian izango ditu ondoreak.

3. Nekazaritzako kooperatiben eta lurren baterako ustiapenerako kooperatiben landa-lurreko ondasunen gainerako zergaren kuota osoan %95eko hobaria aplikatu ahal izango; horretarako Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

4. Hobaria eman eta ondorengo bost zergaldietan kuota osoaren 100eko 50eko hobaria aplikatu ahal izango zaie eguzkiaren energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa egiteko sistemak jarri dituzten ondasun higieziei. Hobari hau aplikatu ahal izateko berotasuna sortzen duten instalazioek kasuan kasuko administrazioak homologatutako kolektoreak eduki beharko dituzte.

5. Kuota osoaren 100eko 50eko hobaria aplikatuko zaie Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Huts" edo merkatu librean etxebizitzaren alokairu bitartekotza programetarako, edota autonomi, foru zein udal mailako antzerako programetarako lagatzen diren ondasun higieziei.

6. Artikulu honetako 4. eta 5. apartatuetan ezarritako hobaria errolda egin aurretik eskatu beharko da Udaletxean, eta, betiere, martxoaren 31 baino lehen. Hobaria jasotzeko eskubidea ematen duten arrazoiak urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen bete beharko dira.

10. ARTIKULUA

1. Bizitegi-erabilerarako ondasun higiezinak izanik, subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzak ez badira eta, era berean, alokairuan emanda edo erabiltzeko lagata ez badaude, Udalak Zergaren kuota likidoaren % 50eko errekarua exijituko du. Zerga horren subjektu pasiboei exijituko zaien errekaru hori zergarekin batera sortuko da eta urtero kitatu behar izango da, kuotarekin batera.

2. Errekargu hori ezartzeko ondorioetarako, Katastroan etxebizitzatzat erabiltzeko jasota dauden lokalak joko dira bizitegi-erabilerarako higiezinatzat. Etxebizitzaren eranskinak ere bertan sartuko dira, baldin eta erregistro-finka bakarra osatzen badute. Ondorio berbererako, bizitegi-erabilerako higiezina ohiko etxebizitza dela joko da, baldin eta zerga sortzen den egunean, etxebizitza okupatzaileraren baten ohiko etxebizitza dela ageri bada biztanle-erroldan.

Honako etxebizitza hauek ez dute errekarurik izango:

3.1. Errentan emandako etxebizitzak.

Hori egiaztatzeko, errentamendu-kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

3.2. Higiezinaren merkatuan saltzeko edo alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzak. Horretarako, ordea:

a) Salmenta-prezioak katastro-balioa bider 2,2 baino txikiagoa izan behar du.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

1. Ordenantza Fiskala Ondasun higiezinaren gaineko zerga

b) Urteko alokairuaren prezioak ez du izan behar etxebizitzaren katastro- balioa bider 2,2 egiteren emaitzaren %4 baino handiagoa, eta hileko kuota ez du izan behar 700,00 € baino handiagoa.

Hori egiaztatzeko:

a) Higiezinaren bitartekaritzako zerbitzuak erabiltzen badira: saltzeko edo errentan jartzeko kontratuaren kopiaren bidez.

b) Higiezinaren bitartekaritzako zerbitzuak erabiltzen ez badira: aitorpen baten bidez. Aitorpenarekin batera, baina, etxebizitza higiezinaren merkaturaren eskaintzen dela egiaztatzeko frogaren bat erantsi beharko da (adibidez, salmentako edo alokairuko txartelak ageri diren argazkia, webguneetako publizitatearen egiaztapenak, edo antzeko elementuren bat).

Alokairu pribatuko etxebizitzari errekarigutik aplikatu ez dakien, Eusko Jaurlaritzaren fidantza gordailututako duela frogatu beharko du alokatzaileak, eta zergaren urtealdian alokairuaren hileko kuota kobratu dituela.

3.3- BIZIGUNEri edo antzerako beste programa publikoren bati lagatako etxebizitzak, berak errentan ipin dezan.

Egoera hori egiaztatzeko etxebizitza programari lagata dagoela ziurtatuz programa kudeatzen duen erakundeak emaniko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.4.- Aurri dauden edota birpartzelazio-proiektua onartuta duten etxebizitzak.

Udalak berak egiaztatuko du hori.

3.5.- Ostatatutako edo hoteltzat erabiltzen diren etxebizitzak, beti ere horretarako jardueraren lizentzia badute eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren jardueraren horren zentsu-aitorpena egina badago.

Hori egiaztatzeko, lizentzia edo baimen egokia aurkeztu beharko da.

3.6.- Erabilera profesionaletarako, merkataritzako edota enpresa-jardunerako erabiltzen diren etxebizitzak; elkarte politikoaren, erakunde sindikalen edota enpresa-erakundearen egoitza erabiltzen direnak; edota irabazi-asmorik gabeko elkarteak hartzen dituztenak.

Hori egiaztatzeko, lizentzia edo baimen egokia aurkeztu beharko da.

3.7.- Jabea hil delako hutsik gelditu diren etxebizitzak.

Heriotza gertatu eta ondorengo bi urteetan geratuko da etxebizitza errekarigutik salbuetsita.

Hori egiaztatzeko, heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3.8.- Jabea hirugarren adinekoentzako egoitza batean sartu delako hutsik geratu diren etxebizitzak.

Egoitzan sartu eta ondorengo bi urteetan geratuko da etxebizitza errekar gutik salbuetsita.

Hori egiaztatzeke, egoitza-ziurtagiria aurkeztu beharko da, sarrera-data adierazita.

3.9.- Adina edo mendetasuna dela eta, mendeko pertsona edo zaintzailea beste etxebizitza batera eraman behar izateagatik hutsik gelditu diren etxebizitzak. Horregatik hutsik geratu den etxebizitzari ez zaio errekar gutik aplikatuko.

Kasu horretan, mendetasun-balorazioa aurkeztu beharko da. Balorazio hori ez zaio eskatuko, ordea, zerga sortzeke unean 85 urte beteta dituen mendeko pertsonari.

Egoera hori egiaztatzeke, mendetasunaren ziurtagiria edota, hala badagokio, jabeak 85 urtetik gora izatearen egiaztatzea (NANA). Horretaz gain, mendetasuna duen pertsona eta haren zaintzailea etxebizitza berean erroldatuta daudela egiaztatu beharko da, erroldatze-ziurtagiriaren bidez.

3.10.- Lan-arrazoiak direla eta, jabea edo beraren ezkontidea EAEtik kanpo dagoen beste udalerri batera joan direlako hutsik gelditu diren etxebizitzak.

Beste autonomia-erkidegoren batera joan eta ondorengo hiru urteetan geratuko da etxebizitza errekar gutik salbuetsita.

Hori egiaztatzeke, jabea egungo etxebizitzan agertzen den erroldatze-ziurtagiria eta pertsona horrek lan egiten duen enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

3.11.- Azken 30 urteetan gutxienez 5 urtez Ermuan erroldatuta egon diren etxeke titularrek lantzean behin erabiltzen dituzten etxebizitzak.

Etxeak lantzean behin erabiltzen dituztela joko da, baldin eta zerga sortu aurreke urtean 8 m³ ur kontsumitu bada, gutxienez.

Hori egiaztatzeke, zerga sortu aurreke urteke ur-kontsumoaren ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

3.12 Zerga sortu denean eraberritzen ari diren higiezinak.

Hori egiaztatzeke, obra egiteke lizentzia emanez Udalak emaniko ebazpena aurkeztu beharko da.

3.13.- Jenderik gabeko etxebizitzei eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeke neurriei buruzke Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 8ke 149/2021 DEKRETUaren indarrez, dagokien kanona aplikatzen zaie etxebizitzak".



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

1. Ordenantza Fiskala Ondasun higiezinaren gaineko zerga

4.- Abian den urteko urtarilaren 1ean bete beharko dira errekaragua ezartzetik salbuetsita lagatzen duten arrazoiak. Hala, errolda prestatu aurretik eta betiere martxoaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dira agiri guztiak.

VIII.SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

11. ARTIKULUA

1.- Zerga zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da.

2.- Zergaldia egutegiko urtea da.

3.- Higiezinaren Foru Katastroan aitortu edo jakinarazi behar diren ekintzek, egintzek eta negozioek katastro-ondorioak izan eta ondoren-ondorengo zerga sortzen denetik aurrera izango dute eragina, eta eragin hori ez da egintza administratiboak jakinaraztearen mende egongo.

Katastro-balioak berrikusi eta aldatzeko prozeduren ondorioz ebatzitako egintzen eraginari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroa arautzen duen Foru Arauan jaso bezala izango dute eragina.

IX. KUDEAKETA

12. ARTIKULUA

1. Udalerrirako urtero prestatzen den katastro-erroldako informazioa oinarri hartuta kudeatuko da zerga, Higiezinaren Foru Katastroa xedatzen duen araudiarekin bat. Errolda hori Bizkaiko Foru Aldundiak prestatu behar duenean, Udalaren esku egoteaz gain, interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean ere eskuratu ahal izango dute. Kontsulta egiteko, ordea, pertsonak euren burua identifikatzeko datuak eman beharko dituzte, datu pertsonalak egoki babestuta egongo direla bermatzeko asmoz.

2. Katastro-errolda jendaurrean azaltzeko epea amaitu eta errekursoak eta erreklamazioak ebatzi ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak, bereganatu duen eskuordetza dela eta, ordainagiriak prestatu eta kobrantza-zerrendak onartuko ditu. Udalak ez ezik, interesdunek ere eskuragarri izango dituzte, aurreko paragrafoan aipaturiko baldintzak bete ondoren.

3. Udalerrri bakar batean dauden landa-ondasunen kasuan, subjektu pasibo berberak zerga horren harira dituen kuota guztiak kobrantza-agiri bakar batean batzeko aukera egongo da.

13. ARTIKULUA

1.- Udal-mugarte honetan dauden ondasunen kasuan, zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko epealdian zein exekutiboan) ahalmenak Udalarenak dira, baita zergen kudeaketarako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

2.- Zehazki udal honek eman edo ukatuko ditu salbuespenak eta hobariak, zerga-zorrak ezartzeko balio duten likidazioak egingo ditu, kobrantza agiriak jaulkiko ditu, zor ez dena itzultzeko espedienteak ebatziko ditu, egintza horien aurka jarriko diren errekurtsoak ebatziko ditu eta paragrafo honetako gaien gainean, zergadunei laguntzeko eta informazioa eskaintzeko jarduerak burutuko ditu.

3.- Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango ditu aurreko bi zenbakietan azaldutako eginkizun guztiak edo horietako batzuk, arau bidez ezarriko denaren arabera.

X. AZKEN XEDAPENA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen honako ordenantza fiskala berau argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2025eko abenduaren 31ko 249zk.an argitaratu eta gero, eta hala egongo da harik eta aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.